

ANTZERKIA. Datorren hilean Maite Agirre eta Teresa Caloren liburu bana kaleratuko du

‘Lotsa-gabe’ antzerki lana argitaratuz bilduma berria zabaldu du Artezblaik

Arte eszenikoetako testuak argitara emanez, hilero liburu berri bat eramango du plazara


Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Felipe Loza eta Garbiñe Losadaren *Sin vergüenzas* / *Lotsa-gabe* liburuak plazaratuz, antzerki lanak argitara emango dituen liburu bilduma bat jarri du abian Elorrio Artezblai Kultur Elkartek, hots, Euskal Herriko arte eszenikoen inguruko informazioan espezializaturiko *Artez* aldizkari ezaguna plazaratzen duen elkarte berberak. *Antzerkia-Teatro* da liburu bildumaren izena.

Lozak eta Losadak gaztelan idatzi zuten *Sin vergüenzas* antzerki lana, eta liburu argitaratu berrian jasotako euskarazko itzulpena, *Lotsa-gabe*, Nagore Aranburu aktore azpeitiarrak egin da. Liburuak Ana Pimenteta eta Iñaki Salvadorren hitzazuzen du, gaztelan idatzia eta halaxe argitaratua, euskarazko itzulpenik gabe.

2000ko urriaren 7an estreinatu zen *Lotsa-gabe*, euskaraz, Errenteria Hiria Kultur Gunean, eta hurrengo egunean izan zuen estreinaldia gaztelaniazko bertsioak, leku berean. Honako hauek dira obraren emanaldietan parte hartu duten aktoreak: Jon Calvo, Getari Etxegarai, Miren Ibaruren, Gorka Otxoa eta Maider Iabar. Zuzendaria Garbiñe Losada da, eta musikaren egilea Iñaki Salvador. Argitalpenaz, berriz, Jokin Conde arduratu da.

Vaiven Producciones etxeak ekoitzi du *Lotsa-gabe* antzerki lana, eta orain artean ehundik gora emanaldi izan ditu, euskarazko eta gaztelaniazkoen artean. Egun, gainera, katalanezko bertsioaren prestakuntza lanak hasi dituzte.



PABLO S. QUIZA

Lotsa-gabe antzerki lanaren emanaldietako bat.

«Arte eszenikoen inguruan egiten den guztia publikoaren-gana bideratzeko asmoa izan dugu beti, eta asmo horrek bultzatuta sortu genuen duela bost urte *Artez* aldizkaria», azaldu du Borja Relaño Elorrio Artezblai Elkarteko kideak. «Horren osagarritzat dugu liburu bilduma berria ere».

Aurrerantzean hilero liburu bat argitaratzeko asmoa dute Artezblaiko kideek, baina hurrengo hilabeteen, *Artez* aldizkariaren bosgarren urteurreneko ospakizunekin bat egiteko, bi liburu plazaratuko dituzte: Maite Agirreren *Y Maria tres veces amapola Maria* / *Bilbao, Lauaxeta: tiros y besos* eta Teresa Caloren *Mentiras* / *Entre líneas*. Liburu bien kasuan, taularatutako lana da

BORJA RELAÑO

Artezblai Elkarteko kidea

«Antzerkia oholza gainean ikusteko idazten da, baina irakurtzea ere onuragarria da»

lehena, eta egundo estreinatu gabea, aitzitik, bigarrena.

Hizkuntza, lanaren arabera

Otsaileko liburuetan euskarazko itzulpenik ez da izango, beraz. Liburuetako hizkuntzaren inguruan ez du irizpide finkorik Artezblaik. «Lanaren arabera izango dira euskaraz edo erdaraz», dio Relaño. «Idazle bakoitzak aukeratzen du bere hizkuntza».

Batzorde bat osatu du Artezblaik bildumako liburuaren hautaketarako. «Gu prest gaude idazleen proposamenak jasotzeko eta aztertzeko», dio Relaño. «Batzuetan eszenaratutako obrak argitaratuko ditugu, beste batzuetan estreinatu gabeak. Bestalde, lehen liburuak literatura dramatikokoak badiira ere, gure asmoa arte eszenikoekin zerikusia duten testuak argitaratzea da».

«Ez da oso ohikoa antzerkia irakurtzea, eta egia da antzerkia idazten denean, normalean oholza gainean ikusteko idazten dela», dio Relaño, «baina antzerkia irakurtzeko aukera ematea ere merezi duela uste dugu, onuragarria delako irakurtzea ere. Horretan lagungarri izateko asmoa du bildumak».

ARTEA

Rio de Janeiroko Guggenheim museoa 2006an zabalduko dela iragarri dute

Agentziak | RIO DE JANEIRO

Bideragarritasunaren inguruko azterketek kontrako aholkurik ematen ez badute, Rio de Janeiroko Guggenheim museoaren egoitza bat izango du 2006an, Thomas Krens Guggenheim Fundazioko lehendakariak atzo iragarri zuenez.

Larunbatean heldu zen Rio de Janeiroa Thomas Krens, eta berarekin batera izan ziren Brasilgo hiriari Juan Ignacio Bidarte Guggenheim Bilbao Museoko zuzendaria eta Jean Nouvel arkitekto frantsesa.

Novel Arabiar Munduaren Institutuaren parisko egoitza eta Tokioko Opera diseinatu ditu, besteak beste, Nouvelek, eta berak diseinatu du Rio de Janeiroko Guggenheim museoa, bideragarritasun azterketen emaitzak museoa egiteko bidea moztu ezean.

Rio de Janeirokoa izango da Guggenheim Fundazioak Hego Amerikan duen lehen museoa. Egun AEBetatik kanpo Berlin, Venezia eta Bilbon baino ez ditu museoak Guggenheim Fundazioak.

ZINEMA

Ted Demme zuzendaria hil da, ‘Blow’ eta ‘Beautiful Girls’ filmen egilea

Agentziak | NEW YORK

Ted Demme zinemagile iparramerikarra igandean hil zen, 37 urte zituela, Santa Monicako erietxe batean, bihotzekoak eman eta hara eramanez ondoren. Heriotza zerk eragin duen argitzeko, autopsia egin behar diote zene duaren gorpuari.

Jonathan Demme, *The silence of the Lambs* film ezagunaren egilea, osaba zuen Ted Demmek. Bere filmen artean *Beautiful Girls* (1996) eta *Blow* (2001) dira ezagunenak. Lehena Donostiako Zinemaldiko sail ofizialean lehiatu zen.

Helena Pimentak zuzenduriko ‘La dama boba’ estreinatuko du igandean Espainiako Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalak

Agentziak | MADRIL

Helena Pimenta gipuzkoarrak zuzendurik, Lope de Vegaren *La dama boba*-ren emanaldia estreinatuko du igandean, Madrillgo La Comedia antzokian, Espainiako Antzerki Klasikoko Konpainia Nazionalak. Juan Mayorgak egin du obraren egokitzea.

Lope de Vega espainiar antzerkigileak bere obran islatu

zuen gerturatzeko xedea duela esan zuen, atzo, Madrilen egindako aurkezpenean, Helena Pimentak: garai hartako emakumeen heziketa, eta amodioak haiengan izan zezakeen eragina. Obraren eszenaratzea arrisku handikoa dela iragarri zuen Pimentak: Lope de Vegak XVII. mendean idatzitako antzerki lana XX. mendeko 30eko hamarkadan kokatu du Pimentaren eszenaratzeak, «obra ida-

tzi zen garaiaren eta gure egunen arteko zubi den garaian».

«Zintzotasuna, konpromisoaren zentzua eta bizitasuna» izan dira, lan egitean, antzerki zuzendariaren giltzarriak, Pimentak berak atzo Madrilen azaldu zuenez. Ikusleak Lope de Vegaren lanaren «irakurketa errebelde baina errespetuzkoa» aurkitzea espero duela esan zuen Gipuzkoako antzerki zuzendari ezagunak.

Egokitzea egitean, Lope de Vegaren testuari zein Helena Pimentaren eszenaratzeari leial izaten saiatu dela adierazi zuen atzo Juan Mayorgak. «Muntaia hau oso Loperena eta oso Pimentarena da». Lope de Vegarengan zein Pimentarengan «bizitza-sen handia» aurkitu du Mayorgak.

Maruchi Leon eta Isabel Ordaz izango dira emanaldiko aktore nagusiak.